



Oxfam txostena

2023ko urtarrila
(Munduko Ekonomia-foroak Davosen
ospatu eban urteko batzarragaz batera)



ABERATSENAREN LEGEA

Muturreko aberastasunari
zerga ezarri
desbardintasuna desagerrarazteko

- 2020tik, aberatsenen %1ak munduan sortutako aberastasun barriaren (42 biloe dolar) heren bi inguru be-
reganatu dau, gainerako %99ak baino ia bi halako.
- Mila miloeko aberatsen dirutzak egunean 2.700 miloe dolar egiten dau gora, eta, bitartean, gitxienez 1.700
miloe langileren soldatek inflazioak igoten dauanaren azpitik hazten dira.
- Gizadiaren %90 behartsueneren artean dagoan pertsona batek aberastasun orokor barritik jasoten dauan
dolar bakotxeko, mila miloeko aberatsak 1,7 miloe dolar poltsikoratzen dau.
- Ergia eta elikaduraren arloko 95 enpresa handiren irabaziak bikoiztu baino gehiago egin dira 2022an,
306.000 miloeko izugarritzko irabaziak sortuz, eta 257.000 miloe (%84) euren akzinodun aberatsei sari emo-
teko erabiliz. Diruzalekeria honek inflazioa hauspotzen dau.
- Aldi berean, 800 miloe lagun, gauero gosez doa ohera.
- Mundu-mailan zergen bidez batutako dolar bakotxeko, bakarrik lau ehunen batzen da aberastasunaren
gainean, eta munduko mila miloeko aberatsen erdia euren ondorengoek oinordetzan hartzen daben abe-
rastasunari oinordetzen gaineko inongo zergarik ezartzen ez jakon herrialdeetan bizi da.
- Miloe askoko eta mila mikoeko aberatsen dirutzari %5erainoko zerga ezarriko balitxako, urtean 1,7 biloe
dolar batuko litzateke, eta horri esker 2.000 miloe lagun pobretasunetik atarako litzatekez eta, gainera,
gosea desagerrarazteko mundu-mailako egitasmoa finantzatzeko litzateke.
- Walmart multinazionalaren %50aren jabe dan Walton dinastiak 8.500 miloe dolar jaso eban joan dan urtean
dibidendutan. Energia-konpainia handien jabe dan Gautam Adani mila miloeko aberats indiarren aberas-
tasuna 42.000 miloe dolar gehitu da 2022an (%46).
- Bestelakoa da inflazioaren hazkundera soldatenaren gainetik kokatzen dan herrialdeetan bizi diran gitxie-
nez 1.700 miloe langileen egoera; gainera, mundu osoko 820 miloe lagun baino gehiago (hamarretik bat
inguru) gose da. Emakumeak eta neskatoak dira jaten azkenak eta gitxien jaten dabenak etxeetan, eta
munduan gose dan biztanleriaren %60 inguru emakume eta neskatoak dira.
- Elon Musk munduko gizonik aberatsenetakoak, %3 baino zertxobait gehiagoko zerga-tasaz baliatuz or-
daindu ebazan bere zergak 2014 eta 2018 bitartean. Aber Christinek hilean 80 dolar irabazten ditu Ugan-
dako iparraldeko azoka batean arroza, irina eta soja salduz. Saltzen dauanaren %40 ordaintzen dau
zergetan.



HILABETE LARREGI GERATZEN DA SOLDATAREN AZKENEAN

Desbardintasunaren egitura barriaren zantzuak Espainian

- Estatu espainiarrean, 2008an, aberastasun gehien eukiaren %1aren esku egoan guztizko aberastasun garbiaren %15,3a, baina 2021ean %23,1ekoa zan portzentaje hori, gitxi gora-behera 4 euro bakoitxeko 1.
- 2022eko urtariletik azarora, inflazioaren eraginez, gitxitu egin da egoera eskasenean dagozan familien erosketa-ahalmena, hain zuzen be, sarrera handienak dabezan familiekin alderatuz, %26koa izan da jatsiera hori.
- Aldi berean, soldatak benetako terminoetan, 2008an hasi zan krisi handiko urterik eskasenetako mailetara jatsi dira eta, dagoeneko, ordukoak baino %4 baxuagoak dira.
- Bitartean, batez be enpresa handiek, irabaziei eutsi egin deutse eta, askotan, gora egin dabe. 2021ean, IBEX 35 dalakoaren barruan dagozan enpresen irabazia, orokorrean, 2019koa baino %63 handiagoa izan zan eta irabazi horreek pandemia aurreko bost urteetako (2015 eta 2019 bitartean) emaitzen batez bestekoaren gainetik be egon ziran, hain zuen, %55. Baina joera hori bizkortu egin da azken urtean. 2022ko hirugarren hiru hilabetean, aurreko ureko aldi bereko emaitzak baino %30 hobeak iragarri ebezan.
- 2022aren amaieran, enpresen marjinak, 2019koekin alderatuz, %60 handiagoak ziran, baina soldatak %4 eskas igo ziran. Indarrean dagoan inflazio-krisi hau soldata-errentak kapitalaren errentetara transferitzeko kanal garrantzitsu bihurtu daiteke, familia pobre eta ahulak bi bider kaltetuz, enpresen irabazietan partaidetza oso urria dabe-eta.
- Prezioen igoeraren %92,5a enpresen irabazien ondorena da.
- 2020tik aurrera, Espainiako mila miloeko aberatsen guztizko aberastasuna 3.000 miloe dolar inguru gehitu da, hau da, giti gora-behera, egunean 3 miloe dolar.

Egoera honi aurre egiteko, behar-beharrezkoa da **zerga-sistema zuzena** izatea. Sistema horrek, gizarte-ekonomia hartu-emon sanoak sustatu beharko leukez; sistema horretan, **gehien dabenek gehiago ordandu beharko leukie** eta sarrera publikoak izan beharko geunkez **osasunean, heziketan edo gizarte babeserako neurrietan inbertitzeko**.



Zerga-ihesaren eta saihestearen aurkako borroka **indartu** eta paradisu fiskalen espainiar zerrenda eguneratu.



“Zerutik jausitako” irabazien gaineko zergak iraukorrak izatea eta etorri daitekezan krisien aurrean sektore gehiago babestera zuzentzea lortu.



%1 aberatsenaren **pre-sino fiskala gehitu** eta kapitalaren errentek lan-errentek besteko zergak ordaintzea eragin.



Ondarearen gaineko zerga berrikusi, zuzenagoa izan daiten eta aberatsenak ordaindu barik geratu ez daitezkan.

Esteka txostenetara: “La ley del más rico” (mundu-mailako) eta “Sobra mucho mes al final del sueldo” (Espainia). **Esteka kanpainara:** “Tax the rich. Por una relación socioeconómica sana”.

Irakurri, hausnartu eta eztabaidatu bakarka eta taldean, txostenen edukien eta datu esanguratsuenen inguruan eta egoerari buelta emoteko aurkeztu beharko litzatekezan proposamenei buruz.